



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/05/05

## **Aldundiak euskal industria ondarea babesteko plan "orokorra" egiteko lehenengo hartu emonak jarriko ditu martxan**

Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako agerraldi batean, Lorea Bibao Euskera eta Kulturako diputatu andreak Batzarrei jakinarazo deusenez, bere sailak, "hemendik udara" Euskadiko beste administrazio batzuek (Eusko Jaurlaritzagaz eta beste Aldundiakaz) lehenengo hartu emonak martxan jarteko asmoa dau, industria ondarea berreskuratzearen arloan jarduketa publikoak bideratu behar dituen "erespide orokorrak" erabagiteko.

"Zeozter egin gura dogu industria ondareagaz", adierazo dau Bilbaok batzarretako taldeen aurrean Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako batzordean, Euskadiko erakundeek izan behar dituen lehentasunak erabagiteko, itsasoko ondarearen kasuan egiten ari danaren "antzera".

### **OROIMEN HISTORIKOA**

Talde Mistoak Euskera eta Kulturako diputatu andrearen agerraldia eskatu dau, "Bizkaia Goazen 2030" Planaren barruan Bizkaiko oroimen historikoa kontserbetako egitasmoa azaldu daian. Egitasmo horren aurrekontua "4 milioi eurokoa" da, Arturo Aldecoa batzordekideak gogoratu dauenez.

Bilbaok adierazo dauenez, Aldundiak egitasmo hori "ikuspegi orokorretik" landuko dau, "gure oroimen historikoa" aurkitzen ahalegintzeko eta "gure bizitza ibilpidearen oroimen kolektiboa barrindartzeko jendearen interesa bizteko", gogoratu dau.

Lan horri "garai desbardinatetik" ekingo jako, lurraldean dagozan kultur guneak eta espazioak erabiliz. Horreen artean Arrolako Oppiduma, Tribisburu, itsasoko ondarea, Pobaleko Museoa, La Encartada, Euskal Museoa edo Bakearen Museoa aitatu ditu. Helburua espazio horreei "txingarrak ateratea" eta "balioan jartea" da, hiru ardatzen inguruan gauzatuko diran "egitasmo barriakaz": "ikerketea", "erabarritzea" eta "hedapena".

Bilbaok zehaztu dauenez, "udaren bukaeran" Aldundiak eginda izango dau daborduko, "belaunaldi barrientzat gure iragana ulertzea errazagoa izateko bidera eroango gaituen" egitasmoa gauzatzeko "estrategia orokorra". Une horretatik aurrera zehaztuko dira lurraldeko kultur espazioetan gauzatu beharreko "jarduketak". Behar hori, oroimen historikoaren arloan ari diran Euskadiko generako administrazioen, unibersidadeen eta alkarteen "eskutik" egingo da.

### **EUSKAL MUSEOA HANDITZEA**

Talde Mistoak eskatuta, diputatu andreak Bilboko Euskal Museoa izango dituan aldaketak be aitatu ditu. Aldaketa horreek be "Bizkaia Goazen 2030" planaren barruan dagoz. Bilbaok museo



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

gune horren kontserbazinorako eta goitik beherako erabarritzerako faseak azaldu ditu. Daborduko bi gauza garrantzitsu eginda dagoz: “Erakundeen arteko akordioa” (Udala eta Foru Aldundia) eta Mikeldiaren erabarritzea.

Une honetan, erakundeak materialen depositua definitzen ari dira. Espazio barri hori non egon behar dan eta bisitentzat zabalik egon daitekean ala ez. Horretan ari dira une honetan teknikariak beharrean. Halanda be, Bilbaok adierazo dau bere ustez egokiagoa izango litzatekela kokalekua museotik “aparte” egotea. Dana dala, diputatuak esan dau une honetan Bilboko gozaintzagaz berbetan ari dirala, Museoak Joan Santuen Eleizako “lokalak” erabili daizan.

Bilbaok adierazo dauenez, daborduko erabagita dagoana klaustroa “estaltzea” da, museoaren kultur ekimenak hedatzeko lekua, “euskal kulturaren topaleku” izan daiten. Idea hori ez dator bat Txusa Padrones EH Bilduko batzordekideak adierazotakoagaz. Bere eretxiz, klaustroak leku “irekia” izaten jarraitu behar dau, iraganean “batutasunerako” lekua izateko egin zalako. “Beharbada arkitekturako beste teknika batzuk begiratu beharko litzatekez”, esan dau.

Aldundiko arduradunak esan dauenez, legealdi honetan bukaerea emon behar jake “museo” proiektuari, “museo eta arkitektura” proiektuari eta proiektu “funtzionalari”, ordena horretan, “euskal kulturaren erreferentziazko museoa” sortu ahal izateko. Museo hori, erabiltzaileak Euskadiko beste kultur gune batzuetara “banatzeko” lekua be izan beharko litzateke. EH Bilduk eskaria egin dau “parte hartzeko mekanismoak” sortu daitezkan, Batzarretako taldeek euren ekarpenak egin ahal daiezan proiektuak egiteko prozesuan.

#### “SAREAREN” LAGUNTZINOAK

Aldundiko arduradunak udal antzokien “Sarea” programazinoari emondako diru laguntzinoen ganeko azalpenak emon ditu Podemos Bizkaia taldeak eskatuta. Bilbaoren berbetan, laguntzino horren helburua Bizkaian titulartasun publikokoak diran antzokietan gauzatzen diran programazino eszenikoak laguntzea eta indartzea da, antzerki, dantza eta musika arloetan.

2015ean laguntzino horreek Bizkaiko “24” antzoki publikotara heldu ziran, eta banandu zan kopurua “600.000 eurokoa” izan zan, aurreko urtean “25” antzokiren artean banandu ziran 611.059 euroak baino apur bat gitxiago. Alde hori, Sopolako udalak galdutako laguntzinoa dala eta azaltzen da, eskaria epez kanpo aurkeztu ebalako. Diputatu andreak adierazo dauenez, gertakari hori “penagarria” izan da.

Bilbaok adierazo dauenez, Udalak oso ondo hartu dabe diru laguntzinoak emoteko linea hori. “Ez da ezelango kexarik egon”, esan dau. Hori dala eta, Aldundiak aurrera jarraituko dau ekimen horregaz.

#### KANTU LEHIAKETEAREN ETETEA

Beste alde batetik, Lorea Bilbaok, Pedro María Unanue Bilbao-Bizkaia Nazinoarteko Kantu Lehiaketarako finantzaketea “etetea” aitatu dau. Laguntzino hori kendu egin da lehiaketak “ez ditualako beteten aurreikusitako helburuak”, hau da, Bizkaian “abeslari liriko barriak lortzea”, azaldu dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Urte birik behin egiten dan kultur ekimen horren edizino bakotxak Foru Aldundiaren “250.000 euroko” laguntzinoa jaso dau. “Inbertsino hori ez dator bat jasoten ari garen datuakaz”, esan dau. 2012an “bizkaitar bik” hartu eben parte lehiaketan, eta 2014an “bakarrak”.

Bilbaok jakinarazo dauenez, datorren urtean proposamen barria aurkeztuko da, lehiaketaren helburuari eutsiz. Hasera batean lehiaketaren helburua abeslari lirikoak sustatzea zan. Dana dala, egitasmo barria “ez dala zertan lehiaketea izan behar” adierazo dau Bilbaok.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
05/05/16

## **La Diputación establecerá los primeros contactos para idear un plan "global" de protección del patrimonio industrial vasco**

En una comparecencia realizada en las Juntas Generales de Bizkaia, la diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha trasladado a la cámara vizcaína la intención de su departamento de entablar los primeros contactos “de aquí al verano” con otras Administraciones vascas (Gobierno Vasco y Diputaciones) para establecer los “criterios generales” que deben regir las actuaciones públicas en materia de recuperación del patrimonio industrial.

“Queremos hacer algo con el patrimonio industrial” ha señalado Bilbao ante los grupos junteros en la comisión de Euskera y Cultura del parlamento vizcaíno, con la intención de establecer las prioridades de las instituciones vascas, en términos “parecidos” a lo que se está haciendo en el caso del patrimonio naval.

### MEMORIA HISTÓRICA

El grupo Mixto había pedido la presencia de la titular del área de Euskera y Cultura para que explicara el proyecto de conservación de la memoria histórica de Bizkaia incluido en el Plan "Bizkaia Goazen 2030" que está presupuestado en “4 millones de euros”, según ha recordado el juntero Arturo Aldecoa.

Bilbao se ha referido a que la Diputación va a abordar este proyecto desde una “perspectiva global” para tratar de encontrar “nuestra memoria histórica” y “encender el interés de la gente para generar un recuerdo colectivo de nuestra trayectoria vital”, ha declarado.

Este trabajo se acometerá desde “diferentes épocas”, utilizando los centros y espacios culturales existentes en el territorio, entre los que ha citado el Oppidum de Arrola, Tribisburu, el patrimonio naval, el museo del Pobal, la Encartada, el Museo Vasco o el Museo de la Paz. Se trata de “sacar chispa” a estos espacios y “ponerlos en valor” con "nuevos proyectos" que se desarrollen en virtud de tres ejes: “la investigación”, “la restauración” y “la difusión”.

Bilbao ha concretado que “a finales de verano” la Diputación habrá elaborado ya la “estrategia general” para desarrollar un proyecto que “nos encamine a que las nuevas generaciones tengan más fácil entender nuestro pasado”. Será, a partir de ese momento, cuando se concreten “actuaciones” en los distintos espacios culturales del territorio. Esta labor se acometerá “de la mano” del resto de administraciones vascas, universidades y asociaciones que trabajan en el ámbito de la memoria histórica.

### AMPLIACIÓN DEL MUSEO VASCO



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

A instancias del grupo Mixto, la diputada se ha referido también a los cambios futuros que experimentará el Museo Vasco de Bilbao. Incluido también en el Plan "Bizkaia Goazen 2030", Bilbao ha explicado las fases de conservación y renovación integral de dicho espacio museístico que ha cubierto ya dos hitos importantes: el “acuerdo interinstitucional” (Ayuntamiento y Diputación) y la restauración del Mikeldi.

En estos momentos, las instituciones estarían definiendo el depósito de materiales. Dónde ubicar este nuevo espacio y si pudiera estar abierto a las visitas, es en lo que trabajan actualmente los técnicos, aunque Bilbao ha mostrado su inclinación a que sea una ubicación “exenta” al museo. En cualquier caso, la diputada ha señalado que actualmente se está hablando con la diócesis de Bilbao para que el Museo utilice "locales" de la Iglesia de los Santos Juanes.

Según Bilbao, lo que está decidido ya es la “cubrición” del claustro, un espacio para difundir las iniciativas culturales del museo, que sirva de “punto de encuentro de la cultura vasca”, ha manifestado. Esta idea no coincide con lo expresado por la apoderada de EH Bildu, Txusa Padrones, que cree que el claustro tiene que seguir siendo un espacio “abierto” por ser concebido en el pasado como un lugar “de recogimiento”. “Igual se deben mirar otras técnicas arquitectónicas”, ha afirmado.

Durante esta legislatura, según la responsable foral, se debe zanjar el proyecto “museológico”, el proyecto “museográfico arquitectónico” y el proyecto “funcional”, por este orden, con el fin de crear “el museo de referencia” de la cultura vasca” que sirva incluso “como distribuidor” de usuarios hacia otros centros culturales vascos. EH Bildu ha pedido que se creen "mecanismos de participación" para que los grupos junteros puedan aportar en el proceso de elaboración de los proyectos.

#### AYUDAS DE LA RED SAREA

La responsable foral ha informado, a petición de Podemos Bizkaia, de las ayudas otorgadas a la programación de los teatros municipales de la red “Sarea”. Según Bilbao, su objetivo es apoyar y potenciar las programaciones escénicas que se desarrollan en los teatros de titularidad pública de Bizkaia en las modalidades de teatro, danza y música.

En 2015 estas ayudas llegaron a “24” teatros públicos vizcaínos y la cantidad repartida fue de “600.000 euros”, un poco menos que los 611.059 distribuidos el año anterior entre “25” recintos. La diferencia se explica como consecuencia de la ayuda perdida por el ayuntamiento de Sopela que presentó la solicitud fuera de plazo, hecho que la diputada ha calificado de “lamentable”.

Según Bilbao, esta línea de subvenciones está siendo muy bien acogida por parte de los ayuntamientos. “No ha habido ninguna queja”, ha dicho. Por eso, la Diputación la mantendrá en el futuro.

#### SUSPENSIÓN DEL CONCURSO DE CANTO

Por otro lado, Lorea Bilbao se ha referido a la “suspensión” de la subvención para financiar el Concurso Internacional de Canto Bilbao-Bizkaia Pedro María Unanue. La retirada de esta ayuda



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

obedece a que el certamen “no cumple con los objetivos previstos”, como son los de “conseguir nuevos cantantes líricos” en Bizkaia, ha explicado.

Cada edición de esta iniciativa cultural que se celebra cada dos años ha sido apoyada por la Diputación con “250.000 euros”. “No es de recibo esta inversión para los datos que estamos obteniendo”, ha dicho. En 2012, participaron “dos vizcaínos” en el concurso y en 2014 “solo uno”.

Bilbao ha informado de que durante el próximo año se presentará una nueva propuesta manteniendo el objetivo del concurso como era inicialmente apoyar la salida de cantantes líricos, aunque Bilbao ya ha advertido “que no tiene por qué ser un concurso”.